

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Eskola eta testuingurua da Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXIII. jardunaldien ardatz nagusia

Hezkuntzako zuzendari nagusiak ireki ditu Departamentuko beste arduradun batzuk ere partaide izanen dituzten topagune hauek

Astelehena, 2019.eko martxoak 11

Martxoaren 11tik 13ra bitartean, Nafarroako Eskola Kontseiluak familiak, irakasleak, gizarte eragileak eta udal arduradunak gonbidatu ditu, ikastetxeen inguruko sare sozialaz gogoeta egiteko. Horixe da [XXIII. jardunaldietarako](#) hautatu den gai nagusia, eta horien barnean, eskolarekin zerikusia duten arte, zientzia eta ingurumen arloetako proiektuak partekatuko dira, besteak beste. Jardunaldiak gaur hasi eta asteazkenera arte luzatuko dira, 17:30etatik 22:00etara bitartean, Nafarroako Museoko ekitaldi aretoan.



Roberto Pérez Elorza hitzaldia ematen, Nafarroako Eskola Kontseiluaren XXIII. jardunaldien irekiera-ekitaldian.

Topaketa hauen bitartez, hezkuntza komunitatetik eta hezkuntza komunitatearendako landutako gogoeten berri eman eta Nafarroan gauzaturiko hezkuntza arloko esperientzia adierazkorrak partekatu nahi dira. Helburua, hortaz, ikerketa taldeen arteko komunikazio bide egonkorrak eraikitzea da, esperientzia interesgarriak agerian utziz eta gizarteari ezagutzera emanez.

Horren harira, Hezkuntzako zuzendari nagusi Roberto Pérez Elorzak hezkuntza arloko esperientzia horiek ezagutzera emateak duen garrantzia nabarmendu du jardunaldien inaugurazio ekitaldian. Hasteko, Eskola Kontseiluaren lana goraiatu du, eskola komunitatearen mesedeko ekarpen handia egiten duten jardunaldi hauek antolatzeagatik. Horrekin batera, arras egokitzen jo du hautaturiko gaia, izan ere, “eskola inguruko gizartean murgilduta dago, eta gizarte horren kidea den aldetik, gizartearen eragina guztiz agerikoa da ikastetxeetan”.

Hiru egun hauetako programaren barnean, hitzaldiak emanen dituzte irakasleek eta Mankomunitateen zein Hezkuntza Departamentuaren ordezkariak, ikastetxeek egoera bakoitzari, errealitate sozialen eta hezkuntza arloko erronken arabera emandako askotariko erantzunak ezagutzera emateko xedez. Horren harira, Pérez Elorzak nabarmendu du,

“ikasgelaren barnean zein ikasgelatik kanpo aurkituko dugun askotariko errealitate honi erantzuteko, nahitaezkoa dela ikastetxeen autonomia birpentsatzea”. Ikastetxeen autonomiari dagokionez, zuzendari nagusiak argi utzi du “ez dela berez helburua, ikastetxeen erantzunak ingurunearen beharretara egokitzeko bitartekoa baizik, emaitzak hobetzeko premiak eta gero eta heterogeneoak diren ikasleen moldaketa eta sozializazio beharrak barne hartuz”. Ikastetxeen autonomiaren hobekuntzaren eredutzat aipatu du Perez Elorzak ikastetxeek eskola-jardunaldia hautatzeko duten aukera, betiere ikastetxeak eskaintzen dituen zerbitzuak nahiz aniztasuna artatzeko baliabideek eskain ditzaketenak koordinatuz, baliabideak behar dituzten ikasleei eman beharreko erantzuna koordinatu ahal izateko.

Esperientzia praktikoak tarteko dituen programa

Gaur, jardunaldien inaugurazioaren ondoren, bertaratutakoek Uxue IPan irakasle dabilen Esther Leza Ongayren hitzaldia entzuteko aukera izan dute. Jarraian, Betisa San Millanek (Uharteko Arte Gareakideko Zentroa) eta Gaizka Zubizarretak (Lizarrako Remontival IP) Artea eta Eskola uztartzen dituen baterako lanaren arloan bildutako esperientzia partekatu dute. Eta gaurko jardunaldiak bukatzeko, Joaquín Sevillak (NUP) eta Ana Esparzak (Azkoengo Ribera del Arga BHI) zientzia eta eskola uztartuz taxutu duten proiektua azaldu dute.

Bihar, martxoak 12, komunitatea eta eskolaz arituko dira Miguel Cosme (Komunikas Ikasketa Komunitateak) eta Enma Martínez (Olaztiko Domingo Bados IP). Jarraian, ingurumenaren eta eskolaren arteko harremani buruz hitz egingen dute Marta Vitalek (Iruñerriko Mankomunitatea) eta Begoña Izquierdo irakasleak (Mendillorri BHI). Eta bihar ere, nazioartekotzea eskola prozesuen eredutzat aztertuko dute Elisa Echeniquek (Hezkuntza Departamentuko Proiektu Europarren Negoziatua) eta Isabel Beltránnek (Iruñeko Padre Moret-Irubide BHI).

Bukatzeko, asteazken arratsaldean, martxoak 13, enplegu sarea eta eskola sortzeko moduz mintzatuko dira Esther Monterrubio (Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketako Zerbitzuko Zuzendaria) eta Juan Carlos Ciria (Tuterako ETI IIP). Azken hitzaldian, eskola berrasmatzeko moduz hitz egingen dute Ander Domblasek (Hezkuntza Departamentuko Antolamendu, Orientazio eta Berdintasun Zerbitzua) eta Joxe A. Iribarrenek (Berriain IP).